


# Puerperio planetatik idazten



**JUNE FERNÁNDEZ**  
KAZETARIA



ANTTON OLARIAGA

**A**rtikulu hau idazten dudan bitartean, Durangon Euskal Herriko Jardunaldi Feministak ari dira. Aurrekoak orain dela hamaika urte ospatu ziren Portugaleten. Nire lehenengo topaketak izan ziren, 23 urte nituelarik. Gogoan dut han sentitutako zirrara, milaka emakumeen artean hitzaldiak entzuten, tailerretan parte hartzen, manifiestazioak egiten eta Kukutza gaztetxeko festan parranda egiten.

Medeak taldearen *drag king* tailerra da gehien gogoratzen dudana jarduera, *queer* teoria eta praktikekin flapatuta nabilen eta. Iskanbila itzela sortu zuen maskulinitatea parodiatzearen eta aldi berean gozatzaren aldeko euren apustuak. Identitateak, gorputza, sexualitatea... Horrelako gaiak erakartzen ninduten garai hartan.

Hamaika urte ondoren, beste gaitan jarri dut arreta, esaterako, zaintza duinen defentsan. Hamaika urte ondoren, ezin izan naiz Durangora joan, alaba jaio berria zaintzen ari naizelako.

Erditu baino lehen, haurtxoarekin agertzearen fantasia inozoa nuen. Puerperioari buruz ezer gutxi nekien. Ez nuen anemia aurreikusten, ezta puntuen eta zoru pelbiko matxuratuaren ondoeza ere. Ez nuen kontuan hartu berrogei eguneko pisurik ez hartzearen gomendioa, ezta

nire alabaren beharrak lehenetsiko nituela eta milaka feministen artean egotea ez dela bi aste haurrarentzat planik egokiena ere.

(Nire sabel ganean lo zaudela idazten dut. Titia hartu eta lokartu berri zara. Ez zaitut sehaskan etzan nahi, esnatzen bazara ezin izango dudalako artikulu hau bukatu. Baina batez ere ez dudalako zure epeltasun goxoa galdu nahi).

Aste honetan ezagun batek haurdun dagoela esan dit, baita nire haurdunaldiaren berri izateak amatasun desioak eragiten ziola esan ere, barne gatazka baretu ziola nolabait. Alegia, ama izateko ere erreferente feministak behar zituela.

Oraindik ere gure baitan errotuta dago amatasuna patriarkatuak inposatzen duen proiektu alienagarria delakoaren diskurtsoa. Emakumeen\* autonomia mugatzen duela eta sakrifizio ugari egitera daramala.

Egia da, autonomia galdu dut. Orain ez naiz ni neu, gu geu baizik.

Egia da, ez naiz Durangora joan, hara hor lehenengo sakrifizioa.

"Bizitza eta zaintzak erdigunean jarri...". Mugimendu feministaren barruan lelo horrek indarra hartu du. Baina gure buruari gogoratu behar diogu bizitza ematea baliotsua dela. Mahai-inguruak entzuten egon ordez pardelak aldatzen

egotea ez dela traizioa. Bularra ematea nire lanbide berria dela gustura onartzen dudanean, lan produktiboa eta erreproduktiboaren arteko hierarkia patriarkala apurtzen ari naizela.

Durangon bildu diren milaka emakumeen\* artean zenbat ama egongo dira? Ehuneko 10, askoz jota? Militantzia –asanbladen ordutegiak, ondorengo poteak, asteburuetakoko topaketak– ez da haur txikiak haztearekin oso bateragarria.

Itzuliko naiz asanbladetara, ala agian ez. Agian, guraso elkarteak izango dira nire militantzia esparru berriak, eta parkea, eta pediateraren kontsulta. Agian, indarkeria obstetrikoren kontrako militantzian murgilduko naiz, nik gozatutako erditze errespetatua salbuespen izan ez dadin. Eta hori ere aktibismo feminista da.

Batek daki.

Egia esateko, jardunaldietatik oso urruti sentitzen naiz, beste galaxia batean flotatzen –"lurtar bat gehiago estralurtarren planetan", idatzi du Ana Mendiak puerperioari buruz, 2662. zenbakian–.

Egia esateko, orain ez nuke Durangon egon nahi. Gustora gaude hemen, gure egongelako sofan, epel-epel. Esnatzen ari zara... Eta titia hartzen. Ene besoetan. Gure planetan. ●